

OTSALAR

GABRIEL ARESTI

Gizona pobre edo aberats
beti dabil afanean
Bizi modua galtzen duela
alferrikako lanean
pena ta mina berdin diola
barauan eta janean
ez dakie la zer den mundutik
sakabanatzen denean.

Abots herrikotzat
Reboltatu zen,
Erresuma zaharreko
Sufrikarioan,
Trumoi bihurtuaz
Irrintzi euskalduna.

GABRIEL ARESTI SEGUOLA

BIHOTZ HANDIDUN SEMEA, BIZITZAN AGERTU ZITZAIGUN HOLA. GU BIZI GAREN MUNDUAN GAUZA ZELAIK, ERRAZAK, ESAN ZITUEN; INOR ESATERA AUSARTZEN EZ ZENEZ, GIZONIK HUMILENEN ETA HERRI BAZTERTUAREN ALDE. ESKU BETEKA BILTZEN ZUEN EGIA, EZKER—ESKUBI BEGIRATUAZ EUSKAL HERRIA. ITZALA EMAN NAHI DUENAK ARGIA HARTU BEHAR DU. BERE BIHOTZA EZKERREAN ZEGOEN ETA BERTAKO ODOLA GORRIA ZEN. HALA ERE, LATIN ITSASORA ATERA GABE, AITAREN ETXEA DEFENDITU ZUEN. ETA POESIA MAILU BIHURTZEN ZUENEZ, AITAREN ETXEKO MINTZOAK IRAUNEN DU ZUTIK!: HARRI ETA HERRI, EUSKAL HARRIA, HARRIZKO HERRI HAU, EUSKAL LITERATURA TXERTO BERRIZ HORNITUZ ETA INDARTUZ. ETA EGUNEN BATEAN MUNDUAK AKABATUKO DIRENEZ, BERAK ESTALDU ZITUEN EGUNAREN ETA GAUAREN ATE MEHARRAK. ORAIN, KORPUTZ, LUR HONETAN EHORTZIRIK DATZA, OHORE HAU EZ DIOTE UKATU GIZONEK. KANPAIEK EZ ZUTEN OTOITZERA DEITU. BAINA, LAUDA!, POETEN PARNASO HARTAN, GOIKO ZERUAK GORDE DEZALA BETIKO BERE ARIMA...